

ALAI

SIMULAGAILUA

JAI ALAI
ETA EUSKAL
PILOTAKO
BIDEO-JOKOAK

JAI ALAI Y LOS
VIDEOJUEGOS DE
PELOTA VASCA

ELISKARA
ZLIRE
UNIBERTSOAN



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura, Euzkara, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Euzkera, Jaiak eta Deporte

JAI ALAI ETA EUSKAL PILOTAKO BIDEO-JOKOAK

Euskal pilota dugu euskal gizartean sakonen errotutako adierazpide kultural eta herrikoietako bat. Belaunaldiz belaunaldi landutako kirol honek garai berrietara egokitzen jakin du, denborarekin bat aurrera eginez, bideo-jokoetara jauzi egiteraino.

*LOAD: Euskal bideo-joko*en historiako kapitulu honetan euskal pilotan oinarrituta egin diren bideo-jokoen ibilbide kronologikoari erreparatuko diogu, lehen erreferentzia agertu zen 1977ko urtetik hasita. Lehenbiziko eta azkeneko izenburuen artean alde teknologiko ikaragarria badago ere, guztiek ere gure kirolaren mamia ederki jasotzen dutela –batzuek hobeto besteek baino– erakutsi nahi dugu monografiko honen bidez.

Historia eta modalitateak

Pilotan jokatzeko ohitura ez da Euskal Herriko tradizioa soilik. Xehetasunetan sakondu gabe, gure kirola aztertu dutenek diotenez, «olgetarako elementurik zaharrena» da pilota, «gehien erabili izan dena eta joko eta kirol gehienen jatorrian dagoena». Ez da harritzekoa, beraz, pilota-jokoen aipamenak aurkitzea Asia, Amerika eta Ozeaniako herrietan, besteak beste. Euskal Herriari dagokionez, hainbat agiritan azaltzen denaren arabera, greziarrak eta erromatarrak izan ziren Europan pilotan jardun zuten lehen inperioak. Zenbait iturriren iritziz, erromatarren inbasioari esker zabaldu zen josteta hori galiarren, anglosaxoien eta Iberiar penintsulako biztanleen artean.

Espainiako Pilota Federazioaren (FEP)¹ webguneko bilduma historikoak dioenez, pilota bat eskuarekin jotzean oinarritutako lehen jokoak Frantzia aurkitzen ditugu XIII. mende inguruan, *jeu de paume* izenarekin. 300 urte igaroko ziren harik eta kirol/denbora-pasa horrek «sekulako hedapena» izan, eta herrialde osoan indar biziz errotu zen

1. Espainiako Pilota Federazioa (FEP) «Historia de la pelota vasca» [on line] http://www.fepelota.com/images/stories/historia_de_la_pelota.pdf [Kontsulta: 2014ko azaroaren 10a]

arte. Antza denez, galiarrek Iparraldean izandako eraginari zor zaio kirola Espainiaraino iritsi izana.

XIX. mendeko azken hamarkadan ezarri ziren euskal pilotako modalitate ezagunenak: esku-pilota, pala, erremontea eta zesta-punta. Gainera, Ameriketara joandako euskaldun ugarien bidez ere gure kultura eta ohiturak han zabaldu ziren, tartean zesta-puntarako zaletasuna. Azkenik, XX. mendean euskal pilota profesionalizatzearekin batera, finkatuta gelditu ziren egungo kirol-ikuskizunaren oinarriak.

Gaur egun, *pilotaleku* edo *frontoi* izeneko esparru batean jokatzen da pilotan. 30 eta 54 metro arteko luzera dauka esparru horrek, eta frontisaz, ezker paretaz, errebotiaz eta kantxaz (lurra) osatuta dago. Jokoaren modalitateei dagokienez, bideo-jokoetan gehien agertzen diren bietan oinarrituko gara gu kapitulu honetan: esku-pilota eta zesta-punta.

Esku-pilota da espezialitaterik naturalena, pilota esku-ahurrarekin zuzenean jotzen duen aldetik. *Zesta-punta* edo *jai alai* izenez ezagutzen dena da, berriz, espezialitaterik ikusgarri eta unibertsalena. Zestalariek gaztaina eta zumez egindako tresna bat erabiltzen dute, pilota harrapatu, muturreraino irristarazi, pilotari bulkada eman eta frontisera botatzeko, ahalik eta indarrik eta abileziarik handienarekin. Mugimendu horrekin 300 km/h-rainoko abiadura hartu dezake pilotak².

Pilotan oinarritutako lehenbiziko bideo-jokoak

Gure kirol honek aisialdi interaktiboan izan zuen lehen agerraldiaren berri jasotzeko, denboraren makina hartu eta atzera egin behar dugu, 1970eko hamarkadara arte. Estatu Batuetan gaude, Atari³ Allan Alcorn ingeniariak sortutako *Pong*⁴ bideo-jokoa herrialde hartako jolas-aretoetan jaun eta jabe zen garaian.

2. Euskal Pilotaren Nazioarteko Federakuntza (FIPV) «Modalidades oficiales de la pelota» [on line] <http://www.fipv.net/es/el-juego/modalidades> [Kontsulta: 2014ko azaroaren 10a]

3. AEBtako enpresa hau Nolan Bushnell-ek eta Ted Dabney-ek sortu zuten 1972ko ekainaren 27an.

4. Jolas-makinatarako egin zen lehenbiziko jokoetako bat izan zen. Allan Alcorn-ek sortu zuen Atari enpresarentzat, 1972an.

AEBetako merkaturatua *Pong* jokoak zekarten etxerako kotsola klonikoez bete zen berehala, hainbat faktoreri esker: jokoak jendearen artean lortutako arrakasta handia, enpresak patenteekin izandako arazoak⁵ eta Alcornen bideo-jokoak exekutatzeko adina memoria-edukiera zuten txip merkeak agertu izana. Antzeko makinez gainezka zegoen merkaturatua, hainbestearino ezen halako batean *Pong* jokoaren aldaerak ere agertzen hasi baitziren, beste mekanika batzuekin baina, lehiatik bereizteko asmoz.

Super Color Volley X izan zen horren adibide bat: Roberts markako etxerako kotsola bitxi hori Dyn Electronics-ek sortu zuen 1977an⁶, General Instrument Microelectronics-en 28 pineko AY3-8600 txipa erabiliz. Hego Korean egindako makina hori Estatu Batuetan saldu zen. Antza denez, Robertsen aurreko kotsolak –Rally IV eta Paddle IV– hobetzen zituen joko-sistema berriak: zuri-beltzezkoak ziren haiek, eta oraingoek, berriz, kolorezko atzealdea zuten. Super Color Volley X⁷ lau aginterekin eta errifle bihurtu zitekeen laser-pistola batekin saltzen zen. Lau joko zituen memorian, *Pongen* tankerakoak guztiak ere: *Tennis*, *Hockey*, *Skeet Targets* (pantailara tiro egiteko jokoak) eta, lehenbiziko aldiz, *Jai Alai* izeneko bat.

Joko horretan, eszenatokiaren mutur batean kokatutako pala bat edo bi kontrolatu, eta, frontisa jo eta gero, pilota eszenatokiaren atzealdera alde egitea eragotzi behar da. Ikusten dugunez, Super Color Volley X-eko jokoak euskal pilotaren mekanika jasotzen du, oso modu soilean.

Super Color Volley X-en aldaera estetiko gisa geroago merkaturatu zen beste kotsola-modelo batean ere, Sportrama 8n, *Jai Alai* jokoak agertuko zen. Bertsio horretako aginteak desberdinak ziren aurrekoaren

5. Atarik arazoak eta atzerapenak izan zituen zirkuitaria elektronikoa *Pong* exekutatzeko zerabilen teknologia patentatzeko ahaleginetan.

6. General Instrument Electronics enpresak txip merke bat diseinatu zuen 1975ean, *Pong* eta antzeko mekanika zeukaten beste bideo-joko batzuk exekutatzeko aukera ematen zuena. Era horretako elektronika integratuari «Pong-on-a-chip» izena eman zitzaion. Erreferentzia: www.pong-story.com [Kontsulta: 2014ko irailaren 22a]

7. *Beaver County Times* egunkariak (Beaver, Pennsylvania, AEB) Hills saltokiaren publizitatea zekarren 1977ko azaroaren 29ko barruko orrialdeetan, eta han Super Color Volley X-en salmenta iragartzen zen, 57,97 dolarrean.

aldean: *paddle*-en ordez norabide anitzeko *joystick* bat zeukaten, *service* izeneko botoi batekin, sakea egiteko. Jokoa aukeratzeko botoian agertzen zen euskal pilotaren erreferentzia, zesta-punta baten marrazkia zeukan ikono batean, hain zuzen ere.

Robertsen makinak ez ziren izan memorian era honetako jokoak gehitu zituzten bakarrak. Coleco enpresak⁸ *Jai Alairen* kopia bat erantsi zuen *Handball*⁹ izenarekin 1977ko Telstar Deluxe kontsolan. Nolan Bushnell-en¹⁰ enpresa ezagunak ere, Atari, bat egin zuen euskal kirolaren modarekin, *Pong* kontsola klonikoen gerrari erantzuteko, 1978an Atari 2600 kontsolarako atera zuen *Video Olympics* kartutxoaren bidez. 50 joko zekartzan *Video Olympicsek*¹¹, *Jai Alairi* erreferentzia egiten dion *Handball* izeneko bat tartean. Atarien kartutxoak jolas-makinetarako bertsio bat zeukan, 1978an zabaldu zena jolas-aretoetan *Tournament Table* izenarekin eta *Handball* jokoa ere jasotzen zuena.

PELOTA VASCA

AEBetako merkatua alde batera utzi eta Espainiara begiratuta, 1986raino egin behar dugu jauzi, gure kirolari buruz Espainian egindako lehenbiziko jokoaren berri aurkitzeko: MSX mikroordenagailuetarako landutako *Pelota vasca* delakoa. Bideo-joko horren historia ez dago batere argi, ez eta nork garatu zuen ere.

8. Maurice Greenbergekin sortu zuen enpresa, 1932an. Hasiera batean larrua saltzen zien zapatariei, baina 1970eko hamarkada erdialdean bideo-jokoaren kontsolen negozioan sartu zen, *Pong* motako makinekin, bereziki. 1984an merkatua utzi zuen, porrot egiteko zorian.

9. 'Eskubalo'i da *handball*en itzulpena. Halere, esku-pilota izendatzeko erabiltzen zen garai hartan. Gaur egun, esku-pilota izendatzeko *Basque handball* esan ohi da ingelesez.

10. Ingeniaria, enpresa-gizona eta Atari enpresaren sortzailea (AEB, 1943). Bideo-jokoaren industriako aitzindarietako bat izan zen.

11. Publizitateak *Video Olympicsek* 50 joko zeuzkala iragartzen bazuen ere, berez dozena bat baino ez zeuzkan. Atari joko-modu guztiak izenburu bereizi gisa zenbatzeari zor zitzaion alde hori.

*LOAD: Euskal bideo-jokoen historiaren laugarren kapitulu honetarako kontsultatutako iturrien arabera, MSX-Extra eta MSX-Club aldizkari espezializatuak argitaratzen zituen Manhattan Transfer argitaletxe katalana izan zen Pelota vasca merkaturatu zuena*¹². Antza denez, bere argitalpenen arrakastaz baliatu zen software-munduan murgiltzeko, «oso kalitate eskaseko jokoekin»¹³, ordea.

Nolanahi ere, *MSX Cassettes!* blogak 2011n *Pelota vascaren* ROM-artxiboaz egindako azterketa batek nabarmendu zuenez, Manhattan Transferrek argitaratutako programen katalogoaren publizitateak ez du jokoaren aipamenik egiten, eta «bideo-jokoaren kargan ere ez da argitaletxearen erreferentziarik» ageri¹⁴. Misterioak argitu gabe jarraitzen du oraindik.

Pelota vascak guztiz urratzen du *Pongen* oinarritutako aurreko jokoen itxura eta jokagarritasuna, eta jauzi kualitatibo bat egiten du MSXen potentziari esker, 8 biteko makina horrek Super Color Volley X, Telstar Deluxe eta Atari 2600ek zeukatena baino askoz maila tekniko handiagoa baitauka. Grafiko minimalistak alde batera utzi, eta atek zabaldu zitzaizkien koloreei eta errealismo pixelatuari.

Lan horrek modu sinesgarri samarrean jaso zuen esku-pilotaren funtsa. Jokalariak ederki definituta daude jokoan eta aise mugitzen dira frontoian barrena. Markagailuaren gaineko lerro batek joaldiaren potentzia-maila adierazten du. Zenbat eta gogorrago jo, orduan eta gorago iristen da pilota. Errestoan datza *Pelota vascaren* zailtasuna, jokalariak itzala agertzen den lekuan kokatu, eta pilota astintzeko une egokia bilatu behar baitu. Esku-pilotan gertatzen den bezala, 22 tantora iristen den jokalariak irabazten du jokoak. Banaka –makinarene

12. 8 biteko MSX ordenagailuan espezializatutako aldizkaria, 1985-1991 bitartean argitaratua.

13. *Recuerdos de 8 Bits*, «Pelota Vasca (Manhattan Transfer, 1986)» [on line] <http://recuerdosde8bits.blogspot.com.es/2012/11/pelota-vasca-manhattan-transfer-1986.html> [Kontsulta: 2014ko urriaren 23a]

14. *MSX Cassettes*, «Revisión de algunos títulos de Manhattan Transfer» [on line] <http://msxcassettes.wordpress.com/2011/11/14/revison-de-algunos-titulos-de-manhattan-transfer/> [Kontsulta: 2014ko urriaren 23a]

kontra— nahiz lagun batekin jokatzeko aukera dago, bi zailtasun-mailatan: amateurra eta profesionala.

Prensa espezializatuak *Pelota vasca*ri buruz egin zuen aipamen urrietako bat Planeta DeAgostinik argitaratutako *Input MSX*¹⁵ aldizkarian agertu zen, 1987ko martxoan kaleratutako 12. zenbakian. Pentsatzekoa da, beraz, bideo-jokoa garai hartan banatu zela. «Gure herriko kirolik zaharrenetako bat»-en ordenagailurako bertsio baten merkaturatzea iragartzen zen aldizkari horretako testu labur batean, mugimenduari eta grafikoei buruzko xehetasun tekniko batzuez lagunduta: «edonor asetzeko bezain onak dira, alferrikako apaingarririk gabe. Soilak baina eraginkorrak». Iruzkin ona, inondik ere, euskal kirolik tradizional eta unibertsalenari buruz Espainian egindako lehen bideo-jokoarentzat.

JAI ALAI

Pelota vasca gorabehera, kirol-molde horrek guztiz ezezaguna izaten jarraitzen zuen 8 biteko jokozaleen artean. 1991ra arte itxoin behar izan zen, espainiar softwarearen Urrezko Aroaren gainbehera betean, harik eta Adolfo Gutiérrez (Madril, 1970) eta Daniel Gutiérrez (Madril, 1972) anaiek Opera Soft-en zigiluarekin beren kutuna argitaratu zuten arte: *Jai Alai*.

Hastapenetako ordenagailuekiko grina gazte-gaztetan piztu zitzairen bi madrildar hauei. «Informatika-dendetan edo El Corte Inglés-en ordenagailu bat ikusten genuen guztietan, hantxe ibiltzen ginen makina haiekin saltseatzen. Pixkana-pixkana giro hartan murgiltzen joan ginen, eta mihiztadura-lengoaia eta makina-kodea ikasten. Gainera, jokozale amorratuak ginenez gero geure jokoak egiten hasteko ideia piztu zitzaigun», diosku anaia zaharrenak.

15. Zenbait iturriren arabera, 1986ko apirilean argitaratu zen *Input MSX*en lehen zenbakia. Planeta DeAgostinik 1988ko abenduan utzi zion aldizkaria argitaratzeari, 31. zenbakian.

«Gauza batek asko markatu gintuen», azpimarratzen du Danielek. «Bazen programatzaile bat, Mike Singleton izenekoa¹⁶, zaldiei buruzko joko kaskar bat¹⁷ egin zuena. Aldizkari batean irakurri genuen gaztelu bat erosi zuela joko harekin bildutako diruarekin¹⁸, eta horrek izugarri markatu gintuen. Jokoak eginez aberastuko ginela pentsatu genuen», gogoratzen du irribarrez.

Ikasle on-onak ziren bi anaiak. «Sei-zortzi bikain ateratzen genituen». Egindako lan gogorra Commodore 64 batekin saritu zieten gurasoek. «82an edo 83an izan zen», dio Adolfo, zalantzatan. Jo eta su erabili zituzten lehen bideo-jokoen artean *Motor Mania* (UMI, 1982)¹⁹ zegoen, ordenagailua erostearekin batera oparitu zieten. «Ederki gogoratzen dut, joko abiaraztean SYS8000 jarri beharra baitzegoen, ez dut sekula ahaztu», azpimarratzen du Danielek.

Bi anaiak diotenez, mikroordenagailuen merkatuko «ahate itsusia» zen Commodore 64 Espainian, etxe gehienetan Spectrum baitzen nagusi. Hala eta guztiz ere, ez omen zuten arazorik izan jokoak aurkitzeko. «Lagunek beti pasatzen zizkiguten jokoak. Guk den-denak nahi genituen –aitortzen dute—. Gabonetan hiruzpalau erosten genituen, baina gero bageneuzkan berrogeita hamar. Gainerako 46ak piratak ziren, noski».

Jokatzen orduak eta orduak emateaz gain, Gutiérrez anaiak liluratuta aritzen ziren jokoak nola programatuta zeuden deskubritzen, «efektu bisual jakin batzuk» bazituzten bereziki. Beren kasa jardunez, garaiko aldizkarietan agertzen ziren «maila jakin bateko errutinei buruzko» artikuluak irakurritz, jokoen barrenak aztertzeari ekin zioten. Danielek dioenez, «mihiztadura-lengoaiara iristean, ez zegoen non ikasia». Alternatiben bila hasi behar izan zuten orduan, eta Data Becker

16. Stuart, Keith. «RIP Mike Singleton, the RPG visionary who revolutionised the genre» [on line] *The Guardian*. 2014ko urriaren 16a. <http://www.theguardian.com/technology/gamesblog/2012/oct/16/mike-singleton-rpg-visionary-games> [Kontsulta: 2014ko urriaren 24a]

17. Commodore PETerako *Horcerace* (1980) zen jolas hori.

18. Bi anaietako inork ez du gogoan hori non irakurri ote zuten. Zurrumurru bat izan zitekeela ere uste dute.

19. Ikuspegi zenitaldun gidatzeko jokoak, Alligata garatzaile britainiarrak argitaratua.

argitaletxearen²⁰ mihiztatzailearen liburuaren ale bat eskuratu zuten. «Ez zegoen beste biderik».

Emilio Butragueño. ¡Fútbol!

Opera Softek kaleratutako *Jai Alairi* heldu aurretik, Espainiako softwareko klasiko handia bihurtuko zen beste bideo-joko batekin trebatu ziren Adolfo eta Daniel Gutiérrezz anaiak: *Emilio Butragueño ¡Fútbol!* (Topo Soft, 1988) jokoarekin, hain zuzen ere. Garai hartan, hamasei eta hamazazpi urte zeuzkaten gure joko-garatzaille gazteek, eta BBBko bigarren eta hirugarren mailak amaitu berritan zeuden, La Estrella bigarren hezkuntzako institutuan. Irakasgai guztiak gaindituta, eta aurretik uda osoa libre zeukatela, aldizkarietan-eta irakurritako garatzaileen bideari jarraitzea eta bideo-jokoen negozioan probatzea erabaki zuten. «Mundu berri-berria zen hura, eta saiatu beharra zegoen», nabarmentzen du Adolfo Gutiérrezz grafistak.

Birritan pentsatu gabe, Javier Canorengana²¹ jo zuten bi gaztetxoek, eta «hura gorteiatzen ibili» ziren 1988ko apiriletik. Garai hartan Cano Topo Soften²² ari zen oraindik. Pisu batean zeuden bulego batzuetara joan ziren aurrena, «ez dakit esaten Toporen bulegoak ote ziren», diosku Gutiérrezz gazteenak. Hantxe agertu ziren Commodore 64rako «*scroll* fin baten ganean mugitzen ziren *sprite* batzuen makina-kodeko errutina batzuekin». Adolfo eta Danielen gaitasunen bila zebilen Cano, oraindik lotu gabe zegoen proiektu baterako.

20. Informatika eta softwareko liburuetan espezializatutako argitaletxe alemaniarra. Commodore 64 eta C128rako programazio- eskuliburuak argitaratu zituen 1980ko hamarkadan. 1980an sortu zuten Achim Becker eta Harald Beckerrek.

21. Galizian jaio zen Cano, eta *espainiar softwarearen Urrezko Aroa* izendatu zenaren aitzindarietako bat dugu. Topo Soft enpresaren sortzaileetako bat izan zen. 2013ko urrian hil zen.

22. 1988an, *Micromanía* aldizkariko zuzendari izandako Gabriel Nietok hartu zuen Topo Soften gaineko ardura, Javier Cano bigarren maila batean utzita. Nietoren eta Canoren artean piztutako tirabirei jarraiki, Canok Animagic garapen-enpresa sortu zuen «itzalean».

Jaume Esteve kazetariak *Ocho quilates* liburuan²³ azaltzen duenez, Canok jakin omen zuen Real Madrileko Emilio Butragueño nazioarteko jokalariaen irudi-eskubideak eskuratu zituela Erbek bideo-joko bat egiteko, eta haren garapena azpi-kontratatzeko asmoa zeukala. Erbek ezer jakin gabe, kirol-joko bat garatu zuen Javier Canok, Topo Softeko zenbait kiderekin batera, *Tehkan World Cup*²⁴ –*Tecmo Cup* izenez ere ezagutzen zen (1985)– jolas-makina erreferentziatzat hartuta. Jokaldi bikain bat eginez, «Topori jokoa aurkeztu zioten beste pertsona baten bidez, eta estudioak amua irentsi zuen»²⁵.

Proiektua mahai gainean zegoela, Gutiérrez anaiek eta Javier Canok hitzarmena sinatu zuten Topo Softek Madrilgo Torpedero Tucumán kaleko etxabe batean zeuzkan bulegoetan. Hitzarmen hari jarraiki, *Emilio Butragueño ¡Fútbol!*-en Commodore 64rako bertsioa garatuko zuten bi anaiek. Hiru hilabete izango zituzten horretarako. Denbora hartan ez zuten jokoaren kodea eskuratu inoiz, «baina Toporen bulegoetara joaten uzten ziguten Amstrad-en bertsioan jokatzera, hura egiten ari baitziren orduan. Guk grafikoak eta jokagarritasuna kopiatu, eta gure Commodore 64an emulatzeko saiatzen ginen gero». Daniel arduratu zen ia programazio guztiaz, anaiaren laguntza pixka batekin, eta Adolfo, berriz, grafikoak egin zituen.

Kontratuan finkatutako hiru hilabeteak ziztu bizian igaro ziren. Canoren taldea urduritzen hasi zen, eta Gutiérreztarrei jokoaren bihurketa erreklamatzeko. Lana entregatu ezean sosik jasoko ez zutela ere erdiesan zieten.

—Orduan ez dugu ezer entregatuko, ez kobratzeko...— erantzun zuen Danielek.

23. Esteve, Jaume. «El rodillo de Topo». *Ocho Quilates. Una historia de La Edad de Oro del software español* (II). 159-190. or. START-T Magazine Books, 2012.

24. Rafael Gómez, Topo Softeko programazio burua eta *Mad Mix Game* (1988) klasikoaren sortzailea arduratu zen bihurketa egiteaz.

25. Esteve, Jaume. «Recordamos a Javier Cano, fundador de Topo Soft» [on line] <http://es.ign.com/retro/69439/feature/recordamos-a-javier-cano-fundador-de-topo-soft> [Kontsulta: 2014ko azaroaren 14a]

Negoiazio haren ondoren, denbora pixka bat gehiago lortu zuten anaiek, eta azkenean hiru hilabeteko atzerapenarekin entregatu zuten egokitzapena. «Gogoan dut azaroa zela, errezeloa hartuta bainengoen berehala azterketak genituela eta».

Javier Canoren esku utzitakoan, azken lana –masterra– Rafael Gómezek jaso zuela uste dute gure gazteek, eta hark «zenbait akats zuzendu» zituela. Gómezek, ordea, ezezkoa dio, bera Spectrum, MSX eta Amstraderako bertsioez arduratu zela bakarrik. «Uste dut Antonio Moya²⁶ arduratzen zela Commodore 64rako bertsioez». Atzerapenaz gain, bazen beste eragozpen bat: jokoa «desmihiztatu ezina» zen eta, beraz, oso zaila zen programazioko zenbait arazo zuzentzea.

Bi garatzaile gazteek bihurketa makinaren memoria gainean programatu zuten zuzenean, Commodore 64rako erosi zuten Final Cartridge²⁷ izeneko kartutxo batekin. «Ez geneukan inolako tresnarik eta, beraz, kode puska bat posizio batean sartuz gero edo memoria erabiltzen ari zinela aldatu egin nahi bazenuen, ez zegoen modurik. Ezinezkoa zen», gogoratzen dute. *Emilio Butragueño*. ¡Fútbol! irrikatua berehala zen merkaturatzekoa, Canoren taldeak ezin zuen denbora gehiagorik galdu Gutierrezarren lanarekin eta jokoa «zegoen horretan» kaleratu behar izan zuten.

Nahigabe eta gorabehera horiek guztiak jasan arren, argitaratu egin zen azkenean Topo Soften bideo-jokoa, 1988an, eta arrakasta izugarria lortu zuen. «Dendetara iristean egundoko arrakasta izan zuen berehala. Asteak eta asteak eman zituen salduenen zerrendan, eta merkatuan hiru hilabete besterik ez zeramatzala 50.000 kopia saltzera iritsi zenean *MicroHobby* aldizkariak horren

26. Antonio Moya *el Rocker*, Topo Soft enpresako joko asko eta askotako ekoizpen-programatzailea.

27. Riska B. V. Home & Personal Computers holandar enpresak Commodore 64rako eta Commodore 128rako sortutako hedapen-kartutxo ezaguna. Aukera ematen zuen karga azkarrak egiteko, diskete-unitatearen abiadura bizkortzeko eta programa baten exekuzioa eten eta berriz ere berrabiatzeko. http://en.wikipedia.org/wiki/The_Final_Cartridge_III [Kontsulta: 2014ko azaroaren 15a]

berri eman zuen. Gauza bera egin zuen handik urte eta erdira, 100.000 aleen muga gainditzean»²⁸.

Espanian gehien saldutako 8 biteko espainiar jokoa bihurtu zen horrela. Gutiérrez anaiek dirutza polita eskuratu zuten lorpen horretatik: «500.000 pezeta kobratu genituen lanagatik, 3.000 euro. Milioi erdia! Eta kolpetik ordaindu ziguten guztia».

Miami Viceren eragina

Emilio Butragueño. ¡Fútbol!-ek harrera ona izan bazuen ere, Daniel eta Adolfo ez zeuden pozik, joko hark ez zuelako erakusten beraiek zekiten guztia eta zer egiteko gai ziren Commodore 64 batekin. Maila teknikoan «ikaragarri kaskarra zen. Gauza batzuk biribildu eta bukatu gabe zeuden –adierazten dute–. Gola sartzea zegoen baloia area erditik nahiz hegaletik aterata. Denbora eta dokumentazio gehiagorekin, eta iturburu-kodea erabiltzeko aukera izanda, amaierako bihurketak itxura hobea izango zuen, inondik ere».

Kirolari lotutako jokoek harrera ona zutela eta gehien saltzen zirenak zirela ikusita, beste lan bati ekin zioten, *Emilio Butragueño. ¡Fútbol!*-ek utzitako zapore gazi-goza kendu nahian. Daniel Gutiérrezrek gogoratzen duenez, «The Bitmap Brothers-ek²⁹ garatutako *Speedball* izeneko futbol-joko futurista kaleratu zen urte haietan, eta asko gustatzen zitzaigun maila teknikoan. Guk ere antzeko zerbait egin behar genuela pentsatu genuen, baina espainiarra».

Lanari ekin aurretik, dohain nagusitzat jokoaren abiada bizia zeukan kirol-motaren bila hasi ziren. «Denetik eginda zegoen ordurako: futbola, saskibaloia, tenisa, olinpiar kirolak... Beste zerbaiten bila genbiltzan gu.

28. Esteve, Jaume. «El rodillo de Topo». *Ocho Quilates. Una historia de la Edad de Oro del software español (II)*. 190. or. START-T Magazine Books, 2012.

29. Britainia Handiko bideo-jokoan estudio hau 1987an sortu zen, eta *Xenon* (1988), *Gods* (1992) eta *Z* (1996) ekoitzi zituen, besteak beste.

Telebistaren bidez etorri zitzaigun inspirazioa, *Miami Vice*³⁰ [*Corrupción en Miami* gaztelaniaz] saioaren bidez, hain zuzen ere, zesta-punta agertzen baitzen sarrerako zenbait sekuentzian³¹. Saio hartan frontoiak eta zesta-puntako txapelketak ageri ziren, eta polit askoa iruditu zitzaigun. Kirol hark nazioartean sona bazuela ikusi genuen, eta ez zegoela ezer antzekorik bideo-jokoen merkatuan».

Gaia aukeratuta, 1989ko udan hasi ziren *Jai Alai* garatzen, ikasturtea amaitu eta udako oporrak aprobetxatuz, berriro ere. Ordurako Javier Cano Animagic-era joana zen jada ofizialki. «Madril erdialdeko auzo bateko» bulego batzuetan³² sortu zuen enpresa, Topo Soften berarekin jardundako lankide batzuekin. «Animagiceraino jarraitu genuen: gure proiektua aurkeztu genion han, gustatu egin zitzaion eta jokoa haientzat garatzeko kontratua sinatu genuen».

PC batekin, mihiztatzaile batekin eta *Emilio Butragueño*. *¡Fútbol!*-en teknologiarekin garatu zuten jokoa, baina oztopo bat gainditu behar izan zuten aurrena, ez baitzituzten zesta-puntaren arauak ezagutzen. Espainiako Pilota Federazioa³³ jo zuten orduan, eta han kirolari buruzko xehetasun guztiak eman eta arauak azaldu zizkieten bi anaiei.

Jai Alairen jarraibideetan zehazten denez, jokalaria gidatutako pilotariak zazpi lehiatzailearen kontra jardun behar du «mundu-mailako ospea eta sona eskuratzeko». Bi frontoitan jokatzen dira partidak: «Miami Arenan (AEBetan kokatua, 1.000 lagunentzako edukierarekin) eta Euskal Jai pilotalekuan (Euskal Herrian kokatua, 1.500 lagunentzako edukierarekin)». Gainera, zortzi arbitro eskaintzen dira aukeran, partidak gidatzeko: «Etxekoena aukeratzea komeni da beti».

30. Don Johnson eta Philip Michael Thomas protagonistatzat zituen AEBtako telesaila. 111 atal izan zituen guztira, bost denboralditan banatuta.

31. *Miami Vice*ko hirugarren denboraldiko 3. atala, «Killshot», Miami Jai Alai kasinoko zesta-puntako partida batekin hasten zen.

32. «Animagic» [on line] *Spectrum*. <http://spectrum.speccy.org/historia/animagic/am.php> [Kontsulta: 2014ko azaroaren 1a]

33. Madrilgo Los Madrazo kalean zegoen Espainiako Pilota Federazioaren egoitza.

Gutiérreztarrek «maitasun eta gogo handia» jarri zuten beren bigarren proiektu hartan. «Kristoren lana egin genuen, eta zehatz-mehatz zaindu genituen xehetasun guzti-guztiak». Sumatzen da, bai. «Sekulako maila teknikoa zeukan. Akatsgabea zen. Pantailako mugimenduak bikain zihoazen, eta *sprite*ek ez zuten inoiz ñir-ñir egiten». Adolfok azpimarratzen du *Emilio Butragueño*rekin gauza batzuk hobetzeke gelditu zirela, «baina hemen ez. Ertzetan *sprite*ekin kokatutako markagailuen xehetasunetan ikusten da hori, adibidez, normalean ezinezkoa baitzen han ezer jartzea».

Urtebete iraun zuen *Jai Alai*ren lanketak, «1990ko ekain edo uztailea arte». Dena den, Animagic krisi larrian murgilduta zegoen ordurako, eta azkenean itxi egin behar izan zuten enpresa. «Ez dakigu lur jo ote zuen edo han zer gertatu zen, baina jokoa halako linbo batean gelditu zen, nahiz eta ordurako guk bukatuta eduki», azaltzen dute Gutiérrez anaiek. Kaxoi batean sartu eta betiko ahaztu aurretik, *Jai Alai*rentzako beste banatzaile bat bilatzea erabaki zuten bi gazteek. «Javier Canorekin izan eta gero, burutik pasa ere ez zitzaigun egin Topora itzultzea, eta beraz, Dinamic eta Opera baino ez zitzaizkigun gelditzen». *La abadía del crimen*en sustatzaileak aukeratu zituzten azkenean.

Bigarren aukera bat

Garai hartan Operako arduradun nagusia zenak, José Antonio Moralesek, dioskunez, «kanpotik iritsi zitzaidan» *Jai Alai* proiektua. «Gustavo Fernández Balbuena kaleko bulegoak utziak geneuzkan eta Madril kanpoaldeko bulego batzuetan geunden orduan, nire etxetik gertu». Operako hasierako taldeak enpresa utzita zeukan ordurako. Espainiar softwarearen Urrezko Aroa zelakoa azkenetan zegoen, eta Moralesen enpresa egoera horren erakusgarri argia zen.

«Leku berrian geundela, ONCEren proiektuan lanean, Madrilgo bi aniak etorri zitzaizkidan. Ez dakit nola aurkitu ninduten ere, baina hantxe etorri zitzaizkidan bulegora, Commodore 64an egindako joko batekin, eta ikaragarria iruditu zitzaidan». *Jai Alai* zen³⁴. «Txundituta gelditu nintzen,

34. Moralesen hitzetan, Gutiérrez anaiek aurkeztu zioten bertsoa «*sui generis* samarra zen».

garai hartan Commodore 64rik ere ez baineukan nik. Beraz, mutilak etxera joan, berena hartu, eta bulegora ekarri zidaten, jokia erakusteko».

Moralesek laudorioak besterik ez ditu *Jai Alairen* akabera teknikoari buruz. «Ikaragarria zen. la guztiz bukatuta zegoen eta joko-aukera ugari zituen: normal, bakarka, bikotean... Commodorerako bikain egindako algoritmo batzuekin guztia ere. Armekin jokatzeko modu bat ere bazeukan, pilota bonba bihurtzen zuten *power up* batzuekin».

Jai Alai hartan betiko moduan jokatzeko aukera bazegoen ere, madrildarrek pixka bat harago eraman zuten zesta-punta tradizionala: era guztietako indartzaile eta armak gehitu, eta «beste dimentsio bat» gehitu zioten gure kirolari. Jesús Relinque Pérezek³⁵ bere *El PixeBlog* izeneko blogean zehazten duenez, «aukera bat gaitzea zegoen, jokalariek zelaian barreiatutako kapsula batzuk hartu eta aparteko botereak lortzeko: jaurtiketak egiteko super indarra, pilota xisterara erakartzen zuen iman bat, bai eta pilota ikusezinak ere, aurkaria goren mailan izorratzeko. Urte batzuk lehenago antzeko ideia aplikatu zuten *Speedball* jokoan».

Lehen bilkura haren ondoren, bere ustez «jokoaren bertsio oinarrizkoak» zirenez arduratzeko proposatu zien Gutiérrez anaiei, Spectrum, Amstrad eta MSXerako bertsioez alegia. «Commodoreak oso gutxi saltzen ziren», diosku. Eskaintza bertan behera gelditu zen, ordea.

—Gu Commodoretan espezializatu gara, eta ez dakigu zipitzik ere beste sistemei buruz—erantzun zioten.

Moralesek, halere, aukerak ikusi zituen joko hartan. Gazteei 500.000 pezeta (3.000 euro)³⁶ ordaindu eta gero, hauek *Jai Alairen* jatorrizko

35. Relinque Pérez, Jesús. «Retrovisión: Jai Alai, Opera Sports». [Con line] *El PixeBlog de Pedja*. <http://elpixeblogdepedja.com/2012/12/retrovision-jai-alai-opera-sports.html> [Kontsulta: 2014ko azaroaren 2a]

36. Adolfo Gutiérrerek dioenez, *royalty*ak kobratzeko aukera aipatzen zuen kontratuak «baina guk ez genuen inoiz jakin zenbat kopia saldu ziren, eta beraz ez genuen dirurik eskatu». José Antonio Moralesek, aldiz, dio ordenagailu guztietarako bertsioak aurkeztu ez zituztenez, ez zutela *royalty*ei buruz hitz egin.

kodea eman zioten guztiz desmihizatuta, gainerako sistemetarako bihurketak egiteko beharrezko grafikoekin batera.

Zesta-puntako jokoak 8 biteko mikroordenagailuetara eramateko lana 1990eko udazkenean hasi zen. Moralesen hitzetan «nolabaiteko porrota» izan zen lan hura. «Commodorean joko arin, dibertigarri eta bizkorra zenak ezaugarri horiek guztiak galtzen zituen Spectrumera pasata. Danielek eta Adolfok Commodorean lortutako maila lortu izan bagenu, seguru nago askoz proiektio handiagoa izango zuela». Ildo horretan, Gutiérrez zaharrenak onartzen du «oso zaila» zela Commodorerako jokoaren ezaugarri teknikoak 8 biteko beste makina haietan emulatzea.

16 biterako makina berrietara jauzi egiteko ahalegin etsian, Opera Softeko zuzendari-kudeatzaile izandako Pedro Ruizengana jo zuten Moralesek, Atari ST eta Amigarako bihurketak egin zitzaizkion.

—Pedro, kristoren joko puska daukat hemen, baina 8 biteko bertsioekin ez dugu lortuko mutil hauek egin dutena erakusterik—esan zion.

Ruizek eskaria onartu, eta Gutiérreztarren *Jai Alairen* bi bertsio duin askoak landu zituen, Atari STk eta Amigak eskaintzen zuten potentzia handiagoa baliatuz. «Opera 16 biteko makina berrien merkatuan murgiltzeko ahalegin etsia izan zen», aitortzen du Moralesek berak.

PCrako bertsio bat ere iritsi zen dendetara, Danielek gogokoen izan zuena. «Gainerakoa ez zen hain txukuna. Erdipurdiko bertsioak ziren, ez baitzuten makinaren potentzial guztia aprobetxatzen. Jokoak ez zeukan jatorrizkoaren bizitasun edo abiadarik. Zesta-puntako joko bat ez bada bizkorra, bertan hil duzu», azpimarratzen du.

Jai Alai ikuspegi zenitaleko joko bat da, eta pilotariek zesta-puntako mugimendu errealek dituzte aukeran: jauziak, plantxan egindako jaurtiketak eta ezker paretan bermatzeko aukera pilota altuak harrapatu ahal izateko. Jaurtiketaren noranzkoa eta indarra kontrolatzean datza jokoaren zailtasuna.

Gutiérreztarren bideo-jokoa 1991ko abenduan jarri zen salgai, garai hartako sistema gehienetarako³⁷: 1.200 pezeta (7,21 euro) kasetean; 2.250 pezeta (13,52 euro) diskoan, eta 2.850 pezeta (17,12 euro) PCrako, Opera Sport zigiluarekin³⁸. Bertsio guztiek ere Alfonso Azpiri komikigileak diseinatutako azal ikusgarria izan zuten.

Hasiera-hasieratik, zesta-puntako inoizko jokorik mediatikoena izan zen *Jai Alai*. *MicroHobby* aldizkarian agertu ziren José Antonio Moralesen enpresaren eskutik kaleratutako lan hari buruzko lehen berriak. Jokoaren «originaltasuna» nabarmendu zuten, «hobekuntza tekniko interesgarri askoak» gehitu izateaz gain. Handik lau hilabetera, aldizkari berak jokoari buruzko beste aipamen bat argitaratu zuen. Orduko hartan, 65 puntu ematen zizkion 100etik, kritika sorta luze batez lagunduta. «*Scrolla* guztiz gogaikarria da eta ekintzak gehiegi luzarazten ditu, moteltasuna nagusitzen delarik». Horrek «jokagarritasun eskasa» ematen zion jokoari, testuaren arabera³⁹.

«Aldizkarietan jokoari buruz agertutako kritikek ez gintuzten leku onean uzten, haiek aztertutako bertsioa Spectrumena zelako. Commodoreko bertsioa aztertu izan balute, gauzak bestela joango ziren», diote jokoaren sortzaileek beren burua defendatu nahian. Adolfo eta Danielen iritziz, «jokoa biribila zen maila guztietan, perfektua. Garai hartan euskal pilotako beste jokorik egin nahi izan balitz, ezin izango zen ezer hoberik egin», azpimarratzen du harro Gutiérrez gazteenak.

Balorazio txarrak bigarren mailan gelditu ziren *Micromaniak* egindako azterketaren ondoren. PCrako bertsioa aztertu zuen José Emilio Barbero erredaktoreak hamarretik zortziko puntuazioa eman zion *Jai Alairi*. «Operako mutilek detaile guzti-guztiak zaindu dituzte eta sistema erabilerraz eta eroso landu dute, xisterarekin pilota harrapatzen dugun bakoitzean jaurtiketa sorta zabala egiteko aukera eskainiz — zioen testuak—. Seguruenik *Jai Alairi* buruz esan daitekeen gauzarik

37. *Jai Alai* makina hauetarako merkaturatu zen: Commodore 64, Spectrum, Amstrad CPC, MSX, PCW, Atari ST, Amiga eta PC.

38. Opera Soften kirol-zigilua.

39. «Jai Alai, en todo los deportes». *MicroHobby*, 206. zk. 1991ko urtarrila. 16. or.

onena da garapen bizkor eta soila duela, ikasteko erraza da baina guztiz menderatzeko zaila, eta sekulako adikzioa sortzen du».

Zesta-puntako jokoaren salmentak ez ziren hurbildu ere egin Opera Softek aurreko urteetan kaleratutako izenburuekin lortutako mailara. Horregatik, urtebete geroago beste aukera komertzial bat eman zitzaion *Jai Alairi*, Opera Super Sport *packean* sartuta, Opera Soften beste joko batzuekin batera: *Ángel Nieto Pole 500*, *Mundial de fútbol*, *Golden Basket* eta *Poli Díaz*. System 4k banatu zuen bilduma, Spectrum, Amstrad CPC eta PC plataformetarako.

Espainiar softwareari bi ekarpen historiko egin eta gero, Adolfo eta Daniel Gutiérrezrek bertan behera utzi zuten bideo-jokoaren garatzaile gisa egindako abentura. Espainiako bideo-jokoaren industriaren gainbeheraren lekuko izan ziren. «Ez zegoen modurik bideo-jokoak eginez bizibidea ateratzeko. Estatu Batuetara joan izan bagina, lortuko genuen, agian. Baina Espainian, inolaz ere ez», diote irmoki.

JAI ALAI SPORT

Hamar urte igaro ziren euskal pilotan oinarritutako beste bideo-joko bat argitaratu zen arte. *Jai Alai Sportez* ari gara, 3DNews TV enpresa gipuzkoarrak egina, eta Euskal Herrian saldu zena gehienbat. Euskal pilotari buruz euskara hutsean sortutako lehen bideo-jokoa izan zen.

Errenteriara jo dugu proiektu haren arduradunekin hitz egiteko. Adolfo Luzuriagak hantxe sortu zuen 3DNews TV 1999an, ikus-entzunezkoak, infografiak, 3D, dokumentalak eta bideoak ekoiztean espezializatutako enpresa txikia.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak «Euskara gure unibertsoan» programa abian jarri berria zuen orduan: enpresa eta elkarteak gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko jarduera eta produktu «moderno eta originalak» sortzera bultzatzeko programa.

Testuinguru horretan, Errenteriako enpresak euskal kultura eta tradizioetan oinarritutako hiru bideo-joko kaleratu zituen:

Estropadak (2000), *Mendizaleak* (2000) eta *Jai Alai Sport* (2001). Kapitulu honetan azken horri erreparatuko diogu.

